# MVSIKASTE



XXV Musika astea Errenterian
1997ko maiatzaren 18tik 24era

XXV Semana Musical en Rentería
del 18 al 24 de mayo d e 1997

# XXV. MUSIKA ASTEA ERRENTERIAN

**1997ko maiatzaren 18tik 24era**



Antolatzaileak:
- Andra Mari Korala
- ERESBIL-Euskal Ereslarien Bilduma

Sustatzailea:
- Errenteriako Udaletxea

Babesleak:
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- KUTXA Fundazioa

Laguntzaileak:
- Gipuzkoako Abesbatzen Elkartea
- Eroski, E.K.
- Yosu, Musika Tresnak
- Casa Erviti

Argazkiak:
- Iñaki Berrio



# XXV SEMANA MUSICAL EN RENTERIA

**Del 18 al 24 de mayo de 1997**


Organizan:
Coral Andra Mari
ERESBIL-Archivo de Compositores Vascos

Promueve:
Ayuntamiento de Rentería

Patrocinan:
Gobierno Vasco
Diputación Foral de Gipuzkoa
Fundación KUTXA

Colaboran:
Federación Guipuzcoana de Coros
Eroski, S.C.
Yosu, Instrumentos Musicales
Casa Erviti

Fotografía:
Iñaki Berrio

Hogeita bost urte igaro dira dagoeneko Euskal Herriko musikaren historia argitu eta hedatu nahian. Horixe da MUSIKASTE 97ren gertakari nagusia.

Etapa garrantzitsu hori gainditu ondoren, euskal musikaren historiaren ezaguera inoiz baino eskuragarriago dugula baiezta dezakegu.

Ukaezina da MUSIKASTEren edizio bakoitzak ezagutza berriak ekarri dituela eta guztira ateratzen den balantzea oso kontuan hartzekoa dela.

Ildo beretik jarraitzeko asmotan gabiltza gure musikaren historian alderdi ilun eta hutsune asko baitira oraindik argitu beharko ditugunak.

Oroigarrien harian, MUSIKASTE 97k Juan Antonio Mujika (bizkaitarra ote?) gogoratu nahi du bere heriotzaren II. Mendeurrenean. Iruñeko Katedraleko kapera-maisu garrantzitsua izan zen eta noiz eta non jaio zen jakin ez badakigu ere, 1797an hil zela jakin dugu.

Gure garaitik hurbilago, MUSIKASTE 97k Marcos de Alkorta (Durango, 1838-1897), eta Canuto Goñi (Iruñea, 1870-1897) ekarri nahi ditu gogora beren heriotzaren I. Mendeurrenean.

Era berean, MUSIKASTE 97k ondoko musikagile hauek oroituko ditu beren jaiotzaren I. Mendeurrena burutzen den honetan: Benigno Arrieta (Azkoitia, 1897-1956), Angel Enbil (Zumaia, 1897-1980), Eustakio Gurrutxaga (Aizarna 1897-1988), Bruno Imaz (Zaldibia, 1897-1972), Arturo Intxausti (Bilbo, 1897-1986), Gervasio Iruarrizaga (Iurre, 1897-1970), Leon Laspiur (Gasteiz, 1897-1980), Felipe de Murieta (Murieta, 1897-1966), Benito Orbegozo (Donostia, 1897-1979), Pablo Sorozabal (Donostia, 1897-1988).

Aurten ere, Ostots taldeak aurkeztuko ditu interes handiko hainbat estrenotan musikagile garaikideek sortu berri dituzten partiturak.

MUSIKASTE 97k Donostiako Orfeoia duela ehun urte sortu zela ospatuko du.



*Eustaquio Gurruchaga*



*Arturo Inchausti Balseiro*
*Bilbao 1897-1986*

*Veinticinco años tratando de clarificar y difundir la historia musical del País Vasco. Este es el gran acontecimiento de MUSIKASTE 97.*

*Transcurrida esta importante etapa, podemos afirmar que ahora es más accesible a todos el conocimiento de la historia de la música vasca.*

*Consideramos indiscutible que cada edición de MUSIKASTE ha aportado conocimientos nuevos y que en una suma total el balance es digno de gran consideración.*

*Reafirmamos nuestra continuidad en la misma línea, conscientes de que siguen existiendo en nuestra historia musical lagunas y puntos oscuros, que paulatinamente trataremos de esclarecer.*

*En línea de conmemoraciones, MUSIKASTE 97 recordará a Juan Antonio Múgica (¿vizcaíno?) en el II Centenario de su fallecimiento. Importante maestro de capilla de la Catedral de Pamplona, ignoramos de momento lugar y fecha de su nacimiento, aunque no el año de su muerte, 1797.*

*Más próximos a nosotros en el tiempo, MUSIKASTE 97 rememora a Marcos de Alcorta (Durango 1838-1897) y Canuto Goñi (Pamplona 1870-1897), ambos en el I Centenario de su fallecimiento.*

*En el I Centenario de su nacimiento MUSIKASTE 97 rememora a Benigno Arrieta (Azkoitia 1897-1956), Angel Embil (Zumaia 1897-1980), Eustaquio Gurruchaga (Aizarna 1897-1988), Bruno Imaz (Zaldibia 1897-1972), Arturo Intxausti (Bilbao 1897-1986), Gervasio Iruarrizaga (Iurre- 1897-1970), León Laspiur (Vitoria-Gasteiz 1897-1980), Felipe de Murieta (Murieta 1897-1966), Benito Orbegozo (San Sebastián 1897-1979), Pablo Sorozabal (San Sebastián 1897-1988).*

*Un año más el grupo Ostots nos presentará las novedades contenidas en partituras de compositores contemporáneos en estrenos de sumo interés.*

*MUSIKASTE 97 tampoco podía pasar por alto el I Centenario fundacional del Orfeón Donostiarra, que será adecuadamente festejado.*



*Bruno Imaz Ganzarain*
*Zaldibia 1897-1972*



*Pablo Sorozábal Mariezcurrena*
*San Sebastián 1897-1988*

# ACTIVIDADES MUSICALES COINCIDENTES CON MUSIKASTE

ASMOZ TA JAKITEZ
EUSKO IKASKUNTZA

CICLO DE CONFERENCIAS SOBRE TRABAJOS DE INVESTIGACION MUSICAL EN EL PAIS VASCO
Organizado por Eusko Ikaskuntza
Lugar / Lekua: Miramar Jauregia / Palacio de Miramar
Hora / ordua: 11,30

**Astelehena 19 Lunes**

El movimiento coral vasco
Hizlaria / Ponente: María Nagore

**Asteartea 20 Martes**

"Naissance et épanouissement de l'opéra basque"
Hizlaria / Ponente: Natalie Morel

**Asteazkena 21 Miércoles**

"Ilustración musical en el País Vasco"
Hizlaria / Ponente: Jon Bagüés

**Osteguna 22 Jueves**

"La investigación etnomusicológica vasca"
Hizlaria / Ponente: Gotzon Ibarretxe

**Ostirala 23 Viernes**

"Música medieval en el País Vasco"
Hizlaria / Ponente: M. Carmen Rodríguez Suso

Exposición "La música de Pablo Sorozábal"
organizado por la Biblioteca Central de San Sebastián

# EGITARAU OROKORRA
# PROGRAMA GENERAL

| | |
|---|---|
| Hasierako eguna<br>Jornada de Apertura | Igandea<br>**18**<br>Domingo |
| Antzinako Musika<br>Música Antigua | Astelehena<br>**19**<br>Lunes |
| Ahotsezko musika<br>Música vocal | Asteartea<br>**20**<br>Martes |
| Kamarako musika<br>Música de cámara | Asteazkena<br>**21**<br>Miércoles |
| Abanguardiako Euskal Musika<br>Músicos vascos de vanguardia | Osteguna<br>**22**<br>Jueves |
| Koruen eguna<br>Día coral | Ostirala<br>**23**<br>Viernes |
| Kontzertu Sinfonikoa<br>Concierto Sinfónico | Larunbata<br>**24**<br>Sábado |



# HASIERAKO EGUNA
# JORNADA INAUGURAL

**1997ko maiatzaren 18an, Igandea.**

**Domingo, 18 de mayo de 1997.**

9,00 Diana de txistularis de Ereintza en 9 barrios

10,00 Diana floreada de Txistus, Tambores de Amulleta y Grupo de metales de la Banda. Salida Plaza de la música

12,00 Acto de Apertura. Salón de Plenos del Ayuntamiento

12,00 Actuación en los barrios de los Grupos de Errenteria Musical:

- Trikitixa
- Banda Txiki
- Grupo de Saxofones y percusión
- Grupo de Acordeones
- Grupo de Guitarras
- Doble cuarteto de cuerda
- Doble cuarteto de viento

13,15 Concierto Banda de la Asociación de Cultura Musical

Programa: Sorozabal y el Teatro lírico

Cabré.........................................Pasodoble
Los Burladores..............................Intermedio
¡Cuidado con la pintura!...............Selección
La Isla de las Perlas.......................Acto 2°
La guitarra de Figaro.....................Fox-Trot



# HASIERAKO EGUNA
# JORNADA INAUGURAL

**1997ko maiatzaren 18an, Igandea.**

**Domingo, 18 de mayo de 1997.**

18,15 Descubrimiento placa e inauguración Plaza Antontxu Sainz
Actuación Dantzaris y Coral Andra Mari

19,00 Festival Sorozábal-Imaz
Plaza de la Esmaltería

Marcha de Deva ............ Pablo SOROZABAL (San Sebastián 1897-1988)
Txistus, Metales
Obertura de Los Burladores ............ Pablo SOROZABAL
(Fandango vasco) Orquesta
Gabiltzan kalez kale............ Pablo SOROZABAL
Txistus, Coros
Maite ............ Pablo SOROZABAL
Orquesta, Coros
Dos danzas vascas ............ Pablo SOROZABAL
Txistus, Danza
Recondo............ Bruno IMAZ (Zaldibia 1897-1972)
Banda
Aupa Gaztelubide............ Bruno IMAZ
Banda, Txistus
Recuerdos de la Fanfare............ Bruno IMAZ
Banda
Erromerian ............ Bruno IMAZ
Txistus, Coros, Danza
Euskalerria (Ay tierra vasca)............ Pablo SOROZABAL
Orquesta, Coros
Zortziko de Bateleras ............ Pablo SOROZABAL
Txistus, Danza
Bigarren kalez kale ............ Pablo SOROZABAL
Txistus, Coros, Danza
Gernika ............ Pablo SOROZABAL
Orquesta, Coros

Grupo Municipal de Txistularis
Orquesta Errenteria Musical
Coros: Landarbaso
Landare
Oinarri
Zunbeltz
Ereintza Dantza Taldea
Director: Sergio ZAPIRAIN



# INTERPRETEAK

Esmalteriako enparantzan lehenengo aldiz egingo den musika-jaialdi erraldoi honen ezaugarririk nagusiena bi euskal musikagileri omenaldia egitea izango da beren jaiotzaren I. Mendeurrena burutzen baita aurten: Pablo Sorozabal (Donostia 1897-1988) eta Bruno Imaz (Zaldibia 1897-1972). MUSIKASTEren Zilarrezko Ezteien barruan burutuko da emanaldi hau eta bertan parte hartuko duten guztiak errenteriarrak dira. Interprete-kopurua handia denez, denak curriculum berean sartuko ditugu.

Txistularien Udal Taldea; partaide guztiak Ereintzakoak dira eta Udalarekin akordio bat sinatu dute kontzertuak eta gainontzekoak emateko.

Errenteria Musikaleko Orkestra eta Banda; Errenteriako Udal Musika Eskolakoak dira. Ganbara Orkestra Sergio Zapirainek zuzentzen du, Orkestra Sinfonikoa Celes Barrosek eta Banda Abel Peronak.

Errenteriako lau koru: Landarbaso Korua eta koru bereko gazteen korua, Zunbeltz, Iñaki Tolaretxipiren zuzendaritzapean, Oiñarri Korua Andra Mari Abesbatzaren gazteen korua Imanol Elizasuren zuendaritzapean eta sortu berri den Landare Abesbatza Jose Miguel Martisen zuzendaritzapean.

Ereintza Dantza Taldea; herrian antolatzen diren ohiko festarik nagusienetan betidanik parte hartu izan duen aspaldiko elkarte errenteriarra.

Interprete horien guztien zuzendaria Sergio Zapirain izango da, Errenteriako musikari-familia ospetsu baten semea.

# INTERPRETES

*La naturaleza de este macrofestival musical, que significa una auténtica inauguración de la plaza de la Esmaltería, tiene como característica especial el homenaje a dos compositores vascos, por conmemorarse el I Centenario de su nacimiento: Pablo Sorozabal (San Sebastián 1897-1988) y Bruno Imaz (Zaldibia 1897-1972). Este homenaje está enmarcado en la conmemoración de las Bodas de Plata de MUSIKASTE. Todos los actuantes pertenecen a entidades musicales renterianas.*

*La abundancia de intérpretes nos mueve a englobar a todos en un curriculum común.*

*Grupo Municipal de Txistularis, procedentes todos ellos de Ereintza Dantza Taldea, con quien el Ayuntamiento ha firmado un convenio.*

*Orquesta y Banda de Errenteria Musical, conjuntos ambos de la Escuela Municipal renteriana. Su actividad va en aumento. Dirige la Orquesta de Cámara Sergio Zapirain. La Orquesta Sinfónica, Cele Barros. La Banda, Abel Perona.*

*Cuatro agrupaciones corales renterianas: Coro Landarbaso y su coro juvenil Zunbeltz, siendo responsable principal Iñaki Tolaretxipi. Coro Oiñarri, cantera de la Coral Andra Mari, dirigido por Imanol Elizasu.*

*Coro Landare, de reciente fundación, dirigido por José Miguel Martis.*

*Ereintza Dantza Taldea, veterana sociedad renteriana, que participa en todas las efemérides más tradicionales del pueblo.*

*Será maestro director de todo el festival Sergio Zapirain, de distinguida familia musical renteriana.*





## HASIERAKO EKITALDIA
## ACTO DE APERTURA

**1997ko maiatzaren 18an, Igandea, 12etan**
**Udaletxeko Areto Nagusian**

"25 años de experiencias en Musikaste", Jose Luis Ansorenaren eskutik hitzaldia

**Domingo, 18 de mayo de 1997, 12 horas**
**Sala Capitular del Ayuntamiento**

"25 años de experiencias en Musikaste" ponencia a cargo de José Luis Ansorena



# JOSE LUIS ANSORENA MIRANDA

Donostian jaio zen 1928ko maiatzaren 2an. Donostiako Kontserbatorioan hasi zituen musika-ikasketak Beltran Pagolarekin eta Luis Urteagarekin eta gero Kaputxinoen Ordenakoekin, kaputxinoa baita, sakondu zituen.

Musika-lan zerrenda txiki baten egilea da. Hitzaldiak ematen, organojole-lanetan eta Andra Mari Abesbatzaren zuzendari eta sortzaile izateagatik nabarmendu da batez ere. Andra Mari Abesbatzarekin batera sortu zuen MUSIKASTE eta jaialdi horretarako eratu ERESBIL Artxiboa. Gaur egun, aipatutako artxiboaren zuzendaria da 1974an Errenterian sortu zenetik

*Nació en San Sebastián el 2 de mayo de 1928. A los 8 años inició sus estudios musicales en el Conservatorio de San Sebastián con Luis Urteaga, Beltrán Pagola y otros, con los que se inició en solfeo, armonía, composición y piano.*

*A los 14 años ingresó en el Seminario capuchino de Alsasua (Navarra), coordinando los estudios eclesiásticos con la ampliación de los musicales.*

*Ordenado sacerdote en 1953, seguidamente comenzó una gran actividad de dirección de coros y de composición de música coral.*

*Ha fundado agrupaciones corales en Pamplona, Zaragoza y Rentería. En esta población guipuzcoana es donde mayor actividad ha desplegado, fundando en 1966 la Coral Andra Mari; en 1968 el Coro infantil Orereta y en 1976 el Coro juvenil Oiñarri. En marzo de 1994 recibió un homenaje de despedida, como director de la Coral Andra Mari, siendo nombrado su Director Honorario.*

*Ha sido presidente de la Sección de Música de Eusko Ikaskuntza.*

*En 1973 creó MUSIKASTE, Semana de Músicos Vascos en Rentería, de la que sigue siendo su director técnico.*

*En 1974 fundó ERESBIL, Archivo de Compositores Vascos, del que sigue siendo su director.*

*Es además el organista de la Parroquia de Ntra. Sra. de Fátima de Rentería y mantiene una gran actividad como conferenciante y musicógrafo.*

*Como compositor, es autor de una corta lista de partituras. Pero es autor de un gran número de biografías de músicos, trabajos sobre el txistu y su entorno, movimiento coral vasco, etc., publicados en libros y revistas de musicología.*



# ANTZINAKO MUSIKA
# MUSICA ANTIGUA

**1997ko maiatzaren 19an, Astelehena, 20etan**
**Kaputxinoen elizan**

**Lunes, 19 de mayo de 1997, 20 horas**
**Iglesia de Capuchinos**

1. Ave maris stella ............ P.J.A. de Donostia (1886-1956)
   4 v.m.

**I Maestros de la Catedral de Pamplona**

2. Surge propera ............ Miguel Navarro (Pamplona ca. 1563-1627)
   4 v.
3. Salve Regina ............ Miguel Navarro
   4 v.
4. Breves dies (1710) (Misas de Difuntos, ............ Francisco de Zubieta
   "para después de la Elevación")
   4 v. y arpa obligada
5. Lloren mis ojos (1768) ............ Andrés de Escaregui (Eibar 1711-1773)
   4 v. y arpa obligada
6. Marcha y Minueto para la entrada del Reyno ............ Anónimo (s. XVIII)
   orquesta
7. Beatus vir (1855) ............ Mariano García (Aoiz 1809-1869)
   (de las "Vísperas Grandes de San Fermín")
   6 v.m. y orquesta
8. Alleluia (1970) ............ Aurelio Sagaseta (Ituren 1935- )
   4 v.m. y orquesta

**II Juan Antonio Múgica ( -1797)**

9. Exultet orbis gaudiis (1778) ("a la Hermandad de Sacerdotes de San Pedro")
   4 v.m. y órgano
10. In omnibus
    (Allegro-Andante moderato-Allegro-Moderato)
    4 v.m. y orquesta
11. Letanía a 8 con violines
    (Allegro-Allegretto-Allegretto-Largo)
12. A ese nuevo Paraíso ("Villancico a la Virgen. Año 1779")
    (Allegro-Moderato, "coplas a dúo"-Allegro, "respuesta a 4"
    4 v.m. y orquesta

Maite Larrea, soprano (10, 12)
Maite Beaumont (10, 11, 12)
Elena Miral, soprano (11)
Milagros Iragui, alto (10, 12)
Yokiñe Beaumont, alto (11)

Juan I. Díaz C., tenor (10, 11)
José L. Jiménez, tenor (12)
Pablo Azpeitia, barítono (7)
Simón Andueza, barítono (11)
Abel Lumbreras, violín (6)
Juan Mª Ruiz, oboe (6)

Capilla de Música de la Catedral de Pamplona
Orquesta de cámara
Maestro de Capilla: Aurelio Sagaseta

# JUAN ANTONIO MUGICA

Ez dakigu noiz eta non jaio zen. 1754an infantea zen, Andres de Eskaregiren ikaslea Iruñeko Katedralean. 1759an Madrileko La Soledad-eko musika-kaperan sakondu zituen ikasketak. 1765etik 1773ra Tuterako Kolegiatako Kapera Maisua izan zen. Bere irakaslea 1773an hil zenean, Iruñeko Katedraleko Kapera Maisu izan zen. 1779an karguari utzi egin behar izan zion osasun-arazoengatik eta Iruñeko San Zerninen txantrea izan zen. Idatzita utzi zituen mezen, bezperetako salmoen, Santisimoari eta Ama Birjinari eskainitako gabon-kanten, letanien, Apostoluei eskainitako himnoaren inspirazioari esker oso musikagile ontzat zeukaten. 1797an zendu zen.

Juan Antonio Mujikaren musika-lan gutxi iritsi zaizkigulako Iruñeko beste hainbat kapera-maisuren musika-lanak programatu behar izan ditugu.

*Se ignora el lugar y fecha de nacimiento. En 1754 era infante, discípulo de Andrés de Escaregui, en la Catedral de Pamplona. En 1759 amplió estudios en la capilla musical de la Soledad (Madrid). Entre 1765 y 1773 ejerció de Maestro de Capilla en la Colegiata de Tudela. Desde la muerte de su antiguo profesor en 1773 ocupó la plaza de Maestro de Capilla en la Catedral de Pamplona. En 1779 renunció a este cargo por razones de salud, para pasar a ser chantre en San Cernin de Pamplona.*

*Fue muy considerado como compositor por la inspiración de sus obras, misas, salmos de vísperas, villancicos al Santísimo y a la Virgen, Letanías, Himno a los Apóstoles, etc... Falleció en 1797.*

*La corta lista de obras de Juan Antonio Múgica, que han llegado hasta nosotros, ha motivado la programación de obras de otros Maestros de Capilla de la Catedral Pamplona.*

# CAPILLA DE MUSICA DE LA CATEDRAL DE PAMPLONA

Nafarroako musika-erakunderik zaharrena da. 1206an idatzi ziren "Chantria" eta tipleen eta "infanteen" eskolania bat sortzeko Estatutuak. 1523an Karlos V.a Iruñera etorri zenean, koruak Espainiako katedraletako kaperen egitura hartu zuen.

Gero Espainiako katedrale askotako kapera-maisu izan diren musikagile garrantzitsu askok lan egin edo ikasi dute koruan bertan: Miguel Navarro, Urban de Vargas, Pedro de Ardanaz, Jose de Cáseda, Sebastian de Albero, Hilarion Eslava, etab...

Azkeneko urte hauetan nabarmen suspertu da eta 40 emanaldi inguru izaten ditu urtean zehar, gehienak ganbara-orkestrekin.

Erroman zenbait kontzertu eskaini ondoren, 1994an itzuli artistiko bat burutu zuen Europako Elkarteko hiru hiriburutan: Brusela, Luxenburgo eta Estrasburgo. 1995ean Ingalaterran (Oxfordeko Unibertsitatean, Londreseko St. John's Smith Square-eko kontzertu-aretoan, Westminsterreko Katedralean) aritu zen arrakasta handiz eta 1996an New Yorken (Lincoln Center, Columbiako Unibertsitatea, NBEko Auditorioa, San Patricio Katedrala, etab...)

1983an "Música en la Catedral de Pamplona" bilduma (partituren ikerketa eta transkripzioa) argitaratzeari ekin zion eta 1992an Musika Artxibo bereko musika-lan argitaragabeak argitaratzen hasi zen CD formatoan. Lehenengo alea XVIII. mendeko musikagileei dagokie. 1996an The Scholars musika-talde ingelesarekin batera (ahots-laukotea eta musika-tresna historikoak) Errenazimendu garaian Iruñeko Katedralean kapera-maisu izan zen Miguel Navarroren antologia bat grabatu zuen CD batean.

*La Capilla de Música de la Catedral de Pamplona es la institución musical más antigua de Navarra. En 1206 se redactan los Estatutos para la creación de la Chantría y de una escolanía de tiples o "infantes". En 1523, con ocasión de la visita del emperador Carlos V a Pamplona, el coro recibió un nuevo impulso y adquirió la típica estructura de las capilla catedralicias españolas.*

*En sus filas han trabajado o se han educado varios músicos importantes, que luego han sido maestros de diversas catedrales españolas: Miguel Navarro, Urbán de Vargas, Pedro de Ardanaz, José de Cáseda, Sebastián de Albero, Hilarión Eslava etc.*

*El coro durante estos últimos años ha experimentado un notable resurgimiento, teniendo una media anual de 40 actuaciones, de las que la mayoría son con orquesta de cámara.*

*Después de varios conciertos en Roma, en 1994 realizó una gira artística por las tres capitales de la Comunidad Europera: Bruselas, Luxemburgo y Estrasburgo. En 1995 actuó con notable éxito en Inglaterra (Universidad de Oxford, sala de conciertos de St. John's Smith Square de Londres y Catedral de Westminster), y en 1996 en New York (Lincoln Center, Universidad de Columbia, Auditorium de la ONU, Catedral de San Patricio etc.).*

*En 1983 inició la publicación de la colección "Música en la Catedral de Pamplona" (estudios y transcripción de partituras), y en 1992 comenzó a editar en CD obras inéditas del propio Archivo de Música. El primer número está dedicado a autores del s. XVIII. En 1996 grabó conjuntamente con el grupo inglés The Scholars (cuarteto vocal e instrumentos históricos) un CD que contiene una antología del renacentista Miguel Navarro, maestro de capilla de Pamplona.*



# AHOTSEZKO MUSIKA
# MUSICA VOCAL

**1997ko maiatzaren 20an, Asteartena, 20etan**
**Kaputxinoen elizan**

**Martes, 20 de mayo de 1997, 20 horas**
**Iglesia de Capuchinos**

| | |
|---|---|
| Melodías para canto y piano | Jesús GURIDI (Vitoria 1886-1961) |
| Noche de viento | Luis de ARAMBURU (Vitoria 1905- ) |
| Espejismo | Silvia SAN MIGUEL (Vitoria 1963- ) |
| 2 Lieder | Pablo SOROZABAL (San Sebastián 1897-1988) |
| 7 Lieder | Pablo SOROZABAL |
| Gure basetxe | Pablo SOROZABAL |
| Ill eta gero beti lurpean | Pablo SOROZABAL |
| 8 canciones a 2 voces con acompañamiento de guitarra | Pablo SOROZABAL |

Itziar MARTINEZ, sopranoa
Maite ARRUABARRENA, mezzosopranoa
Per Arne FRANTZEN, pianoa
Eugenio TOBALINA, kitarra

# PABLO SOROZABAL MARIEZCURRENA

Donostian jaio zen 1897ko irailaren 18an. Donostiako Arte Ederretako Akademian hasi zituen musika-ikasketak: solfeoa Manuel Zendoiarekin, bibolina Alfredo Larrocharekin eta pianoa German Zendoiarekin.

Hirukote bat osatu zuen Santos Gandia biolontxelojolearekin eta Juan Telleria pianojolearekin.

Harmonia eta konposizio-ikasketak burutu zituen Beltran Pagolarekin. 1919an Madrila abiatu zen musikagile-lanetan aritzeko. Orkestra Filarmonikoan sartu zen baina 1920an Leipzig-era joan zen ikasketak sakontzera Donostiako Udalak hasieran eta gero Gipuzkoako Diputazioak emandako beka bati esker. Han kontrapuntoko ikasketak Stephan Krehl-ekin eta Orkestra-zuzendaritzakoak Hans Sitt-ekin burutu zituen.

1922koak dira koruentzat sorturiko bere lehenengo musika-lanak. 1923an "Suite Vasca" idatzi zuen koru eta orkestrarako. Gero koruetarako, txisturako musika-lanak, lieder, ganbara-musika eta musika sinfonikoa landu zituen.

1931n Katiuska opereta estrenatu zuen. Orduz geroztik musika lirikoa besterik ez zuen landu eta 23 partitura, zartzuela, opereta, balleta, errebista, etab... sortu zituen eta guztiak estrenatu dira. Idatzi zuen azkeneko musika-lana, Juan Jose opera da estrenatu ez den bakarra.

Hiru filmetako musika berak ere sortu zuen. Antzerkietako lana zertxobait baretu zitzaionean, hasieran idazten aritu zen antzeko musika-arlora itzuli zen. Koruentzako musika-lanak eta partitura sinfonikoak sortu zituen. 1966an atseginen zuen musika-lana idatzi zuen: Gernika. 1978ko ekainaren 30ean Donostiako Udalak Hiriko Gorazarrea eman zion.

Pablo Sorozabalek bere memoriak idatzi zituen "Mi vida y mi obra" izenburupean musika- eta giza nortasuna ezagutarazteko.

Madrilen zendu zen 1988ko abenduaren 26an.

Musika-lanak: Neskatxena, Maitea Koruai eskainitako suitea; Chantons mes chers amis Easo Koruari eskainitako suitea; koruentzat idatzitako 30 musika-lan; txisturako musika-lanak: Donostia, Dos danzas, Irugarren kalez kale ...; Dos lieder, Siete lieder, Gure basetxea, Urrundik...; Bariazio sinfonikoak, Dos apuntes vascos, Gernika, Victoriana...; musika lirikoa: Katiuska, La del manojo de rosas, La tabernera del puerto, Don Manolito... Adios a la Bohemia, Juan Jose ...

*Nació en San Sebastián el 18 de setiembre de 1897. Inició sus estudios musicales en la Academia de Bellas Artes de San Sebastián; solfeo con Manuel Cendoya, violín con Alfredo Larrocha y piano con Germán Cendoya.*

*Formó un trío con el violoncellista Santos Gandía y el pianista Juan Tellería. En 1914 ingresó en la Orquesta del Gran Casino, dirigida por Alfredo Larrocha.*

*Estudió armonía y composición con Beltrán Pagola. En 1919 se trasladó a Madrid, para darse a conocer como compositor. Se incorporó en la Orquesta Filarmónica, pero en 1920 se trasladó a Leipzig con una beca del Ayuntamiento de San Sebastián y más tarde de la Diputación de Gipuzkoa. Allí estudió contrapunto con Stephan Krehl y dirección de orquesta con Hans Sitt.*

*De 1922 datan sus primeras obras corales. En 1923 compuso la Suite Vasca para coro y orquesta. Seguidamente fue componiendo otras obras corales, para txistu, lieder, música de cámara, música sinfónica.*

*En 1931 estrenó su opereta Katiuska. A partir de aquí Sorozabal se dedicó por completo a la música lírica, produciendo un total de 23 partituras, zarzuelas, operetas, ballet, revista, etc., todas ellas estrenadas. Su última obra, la ópera Juan José, es la única que permanece sin ser estrenada.*

*También escribió la música para tres películas. Cuando su actividad teatral amainó un tanto, regresó a su mundo musical de origen. Compuso nuevas series de canciones corales y partituras sinfónicas. En 1966 compuso su obra preferida, Gernika.*

*El 30 de junio de 1978 el Pleno del Ayuntamiento Donostiarra le concedió la Encomienda de la Ciudad.*

*Pablo Sorozabal dejó escritas sus memorias "Mi vida y mi obra", escrito fundamental para conocer su personalidad musical y humana.*

*Falleció en Madrid el 26 de diciembre de 1988.*

*Obra: Neskatxena : suite coral dedicada al Coro Maitea, Chantons, mes chers amis: suite coral dedicada al Coro Easo, Otras obras corales hasta 30.*

*Música para txistu: Donostia, Dos danzas, Irugarren kalez kale....*

*Dos lieder, Siete lieder, Gure basetxe, Urrundik...*

*Variaciones sinfónicas, Dos apuntes vascos, Gernika, Victoriana...*

*Música lírica: Katiuska, La del manojo de rosas, La tabernera del puerto, Don Manolito... Adiós a la Bohemia, Juan José...*

## JESUS GURIDI BIDAOLA

Gasteizen jaio zen 1886an. Madrilen ekin zion musika ikasteari. Bilbon ihardun ondoren, Pariseko Schola Cantorum-en hasieran eta gero Bruselan eta Kolonian sakondu zituen ikasketak. Bilboko Koral Elkarteko zuzendaria izan zen 1912z geroztik eta musikagintza-arloan etapa distiratsu bati ekin zion era guztietako generoak landuz: korurako, organorako musika erlijiosoa, euskal eta Espainiako beste hainbat lurraldetako orfeonika, ganbara-musika, sinfonikoa, lirikoa, filmetako musika, etab... Oso musika miresgarrria sortu zuen genero guztietan. 1939an Madrilen hasi zen bizitzen eta bertako Kontserbatorioko organo-katedraduna izateaz gainera, 1956tik aurrera bertako zuzendaria izan zen 1961ean zendu zen arte.

*Nació en 1886 en Vitoria-Gasteiz. Hizo sus primeros estudios musicales en Madrid. Los continuó en Bilbao y amplió en la Schola Cantorum de Paris y más tarde en Bruselas y Colonia.*

*Desde 1912 fue director de la Sociedad Coral de Bilbao e inició una brillante etapa de compositor, probando todos los géneros: música religiosa para coros, órgano, orfeónica vasca y de otras regiones españolas, música de cámara, sinfónica, lírica, música de cine, etc... dejando música admirable en todos los géneros.*

*En 1939 fijó su residencia en Madrid, en cuyo Conservatorio desempeñó la cátedra de órgano y desde 1956 fue director hasta su muerte en 1961.*

## LUIS ARAMBURU MARTINEZ DE SAN VICENTE

Gasteizen jaio zen 1905ean. Bere aitarekin, Juan Santiagorekin, hasi zituen musika-ikasketak. Gero, harmoniako ikasketak burutu zituen A. Jose Domingo de Santa Teresarekin. Pianoko, organoko, biolontxeloko eta tronpako ikasketak baliozkotu zituen Bilboko Kontserbatorioan.

Musikagile emankorra da, bere burua aurkezten zuen konposizio-lehiaketa guztietan garaile eta musika erlijiosoaren arloan sortu ditu batez ere bere musika-lanik gehienak: 50 himno, motete, gabon-kanta, salmo, etab... Baina, era berean, baditu erromantza eta musika-lan koral ugari, 50 baino gehiago, txisturako musika, musika sinfonikoa eta ia ezezagunak diren beste hainbat musika-lan talde instrumental txikientzat sortuak.

*Nació en Vitoria-Gasteiz en 1905. Hizo sus primeros estudios musicales con su padre, Juan Santiago. Estudió armonía con el P. José Domingo de Santa Teresa. Convalidó sus estudios de piano , órgano, violoncello y trompa en el Conservatorio de Bilbao.*

*Compositor prolífico, vencedor en cuantos concursos de composición se presentaba.*

*Su lista de obras presenta un amplísimo predominio de música religiosa: 25 misas, 50 himnos, motetes, villancicos, salmos, etc... Pero también es autor de un gran fondo de romanzas y obras corales, más de 50, música para txistu, música sinfónica, y otras obras para grupos instrumentales menores, que apenas son conocidas.*

# SILVIA SAN MIGUEL

Gasteizen jaio zen 1963an. Solfeoko, harmoniako eta pianoko ikasketak burutu zituen Madrileko Errege Kontserbatorioan 1983tik 1989ra. Ondoren, Holandara abiatu zen ikasketak sakontzera Henk Alkemarekin eta 1993an konposizio-ikasketak eta orkestra-zuzendaritzakoak burutu zituen Bostonen John Bavicchi eta Jeffrey Rink-ekin, hurrenez hurren. 1993an "Writing Division Award" Saria irabazi zuen Berklee-n eta 1994an hiri bereko Konposizio Saila ordezkatzeko aukeratu zuten "Quincy Jones Award" musika-lanarengatik. Hainbat mintegi, symposium, irrati eta telebista programatan parte hartu du. Gaur egun Bostoneko Brookline-ko Orkestra Sinfonikoak eskatu dion musika-lan bat burutzen ari da eta 1997an estrenatuko da.

Musika-lanak: Koru eta orkestrarako idatzitako "Requiem para la Rainforest"; "Distancia" soprano, gitarra eta biolontxelorako eginiko kantak; Bandarako "Fantasía de los Elementos"; "Cielo protector" soprano, mezzo eta pianorako; "El final del círculo" bibolin, biola eta pianorako; "Schola" Bernardo Atxagaren hitzetan oinarrituriko kantak.

*Nació en Vitoria-Gasteiz en 1963. Hizo sus estudios de solfeo, armonía y piano en el Real Conservatorio de Madrid de 1983 a 1989.*

*Amplió sus estudios en Holanda con Henk Alkema y en 1993 en Boston composición con John Bavicchi y dirección de orquesta con Jeffrey Rink.*

*En 1993 obtuvo el premio "Writing Division Award" en Berklee y en 1994 fue seleccionada para representar al departamento de Composición de esta ciudad por su "Quincy Jones Award".*

*Ha participado en diversos seminarios, symposiums, programas de radio y televisión, etc.*

*En la actualidad trabaja en una obra para la orquesta sinfónica de Brookline en Boston, que será estranada en 1997.*

*Obras: Requiem para la Rainforest, para coro y piano. Distancia, canciones para soprano, guitarra y cello. Fantasía de los elementos, para Banda. Cielo protector, canciones para soprano, mezzo y piano. El final del círculo, para violín, viola y piano. Shola, canciones sobre textos de Bernardo Atxaga.*

# EUGENIO TOBALINA

Bilbon jaio zen eta bertan hasi zituen musika-ikasketak. Nazioarteko hainbat ikastarotan parte hartu du eta David Russell eta Leo Brouwer izan ditu irakasle. Bilboko eta Cordobako Orkestra Sinfonikoekin aritu da bakarlari-lanetan. Ganbara-musikaren arloan azpimarratzekoak dira Pro Arte Laukotearekin, Arkadius Laukotearekin, La Habanako Hari Laukotearekin eta LIMekin lankidetzan eman dituen kontzertuak.

Gitarrarako errepertorio berria sortzen saiatu da bereziki. Musikagile garaikide askoren musika-lanak estrenatu ditu.

Ondoko antzoki eta jaialdietan parte hartu du: Madrileko Auditorio Nazionalean eta Reina Sofia Arte Zentroan, Granadako Manuel de Falla Auditorioan; Cordobako Gitarra Jaialdian, Leoneko Espainiar Musikako Jaialdian, Bilboko XX. Mendeko Musika Jaialdian, Donostiako Musika Hamabostaldian, Gasteizeko XX. Mendeko Musikaren Zikloan, Errenteriako MUSIKASTEn... Espainiatik kanpo Txilen, Venezuelan, Frantzian, Alemanian eta Italian eman ditu kontzertuak.

Venezuelako Irrati Nazionalarentzat eta Espainiako Irrati Telebistarentzat burutu ditu grabazioak. Era berean, LIMekin eta Euskadiko Unibertsitateko Koruarekin burutu ditu hainbat grabazio komertzial.

*Nació en Bilbao, donde inició sus estudios musicales. Asistió a diferentes cursos internacionales, estudiando con David Russell y Leo Brouwer. Como solista, ha actuado con las orquestas sinfónicas de Bilbao y Córdoba. En el aspecto camerístico, destacan sus colaboraciones con el Cuarteto Pro Arte, el Cuarteto Arkadius, el Cuarteto de Cuerda de La Habana y el LIM.*

*Ha estimulado la creación de nuevo repertorio para guitarra. Ha estrenado muchas obras de compositores contemporáneos.*

*Ha actuado en el Auditorio Nacional y Centro de Arte Reina Sofía (Madrid), Auditorio Manuel de Falla (Granada); Festival de Guitarra de Córdoba, Festival de Música Española de León, Festival de Música del Siglo XX de Bilbao, Quincena Musical de Donostia, Ciclo de Música del Siglo XX de Gasteiz, Musikaste de Rentería...Fuera de España ha actuado en Chile, Venezuela, Francia, Alemania e Italia.*

*Ha realizado grabaciones para R.N. de Venezuela, R.N. de España y T.V.E.*

*Así mismo ha colaborado en grabaciones comerciales con el LIM y el Coro Universitario del País Vasco.*

# ITZIAR MARTINEZ

Donostiarra da. Stuttgarteko Hochschule für Musik und Darstellende Kunst-en burutu zituen Kantuko Goi-mailako Ikasketak eta operakoak, Osloko Staatens Operahogskole-en. 1988an Osloko Unibertsitateko Aretoan hasi zen kantari eta sari asko lortu zituen. Hori dela eta, Norvegiako Opera Nazionalak gonbidatu zuen Xirula Magikoaren "Pamina"ren papera kantatzeko. 1989z geroztik Norvegiako Opera Nazionaleko bakarlari finkoa da eta orain arte atzerritar bakarra. Ondoko paper hauek guztiak kantatu ditu: Rosina (Sevillako Bizargina), Cherubino (Figaroren Ezteiak), Zerlina (Don Giovanni), Despina (Cosi fan Tutte), Micaela (Carmen), Liú (Turandot), Mimí (La Boheme), etab... Norvegiako Orkestra Sinfoniko eta Ganbarako Orkestra gehienekin kantatu du eta Liedeko kontzertu ugari eman Eskandinavian, Danimarkan, Alemanian eta Euskal Herrian.

Duela gutxi arrakasta handia izan du Mimí-ren(La Boheme) paperean Estokolmoko Operako Errege Teatroan. Ondoren, "Desdemona"ren papera kantatzeko gonbitea jaso du 1998ko udaberrian Teatro berak burututako ekoizpen berrian. Joan den otsailean, Otelloren Desdemona-ren papera kantatu du eta Norvegako kritikak goraipatu egin du. Datorren irailean I Pagliacci-ren Nedda kantatzeko asmoa du eta hori da gaur egun prestatzen ari dena.

*Natural de San Sebastián. Hace su carrera Superior de Canto en la Hochschule für Musik und Darstellende Kunst de Stuttgart, y los estudios de ópera en la Staatens Operahogskole de Oslo.*

*Su debut en el Aula de la Universidad de Oslo en 1988, fue galardonado con diversos premios. Esto la hizo merecedora de ser invitada por la Opera Nacional de Noruega, para interpretar "Pamina" (Flauta Mágica).*

*Desde 1989, es solista fija del elenco de la Opera Nacional de Noruega, y por el momento la única extranjera. Ha interpretado numerosos papeles entre los que destacan Rosina (Barbero de Sevilla), Cherubino (Bodas de Figaro), Zerlina (Don Giovanni), Despina (Cosi fan Tutte), Micaela (Carmen), Liù (Turandot), Mimí (La Bohéme), etc.*

*Ha cantado con la gran mayoría de Orquestas Sinfónicas y de Cámara de Noruega y como intérprete de Lied, en los Paises Escandinavos, Dinamarca, Alemania y Euskadi.*

*Recientemente ha cosechado señalados éxitos con su interpretación de Mimí (La Bohéme) en el Teatro Real de Opera de Estocolmo. A continuación ha sido invitada para interpretar "Desdémona" en la nueva producción del mismo Teatro Real en la temporada de primavera de 1988.*

*En febrero pasado ha interpretado Desdémona de Otello y las críticas Noruegas han elogida cálidamente su realización.*

*Actualmente prepara Nedda de I Pagliacci para su interpretación en el próximo mes de setiembre.*

# MAITE ARRUABARRENA

Errenterian jaio zen eta Donostiako Goi-mailako Musika Kontserbatorioan hasi zituen musika-ikasketak eta Errenteriako Andra Mari Abesbatzan kantatu zuen. Donostiako Orfeoiaren Kantu Eskolan ikasi zuen Isabel Alvarezekin eta Elizondon Juan Erasorekin. Ondoren Italiara abiatu zen ikasketak sakontzera Claude Thiolas maisuarekin. Psikologian lizentziaduna da.

1989an "Toti dal Monte" Nazioarteko Kantu Sariketan lehenengo saria eskuratu ondoren, Treviso-n (Italia) ekin zion ibilbide artistikoari Mozarten "Don Giovanni" operan kantatuz. Orduz geroztik hainbat jaialditan eta opera-denboralditan parte hartu du Madrilen, Bartzelonan, Bilbon, Donostian, Granadan, Santanderren, Palma de Mallorcan, Estrasburgon, Montpellierren, Rovigon, Messinan eta beste hainbat lekutan.

Duela gutxi, Mexikoko Arte Ederretako teatroan Rossiniren "Cenerentola"ren papera kantatu du eta Madrileko Zartzuelan Verdiren Falstaff operan Meg-en papera.

"La Capella reial de Cataluña" eta "Hesperion XX". taldeekin Barrokoari eta Errenazimenduari dagozkien musika-lanak kantatzeaz gainera, opera ugaritan parte hartzen du: "La Cenerentola", "Il barbiere di Siviglia", "Don Giovanni", "Le nozze de Figaro", "Cosi fan tutte", "La clemenza de Tito", "Faust", "Les contes d'Offmann", "Falstaff", "La forza del destino", "Cavalleria rusticana", etab...

Laister Malagan izango da Eugenj Onjegjn-en Olgaren papera kantatzeko, Oviedon Sevillako Bizarginaren Rosinarena burutzeko, Bilbon "Don Giovanni"ren Zerlinarena, A Coruñan "Hoffmann-en ipuin"etako Niclause-na eta Kanariar Irletako Las Palmas-en Falstaff-en Meg-ena.

Leridan "Goyescas" zartzuela kantatuko du, Tenerifen Mendelson-en 2. Sinfonia eta Donostiako Musika Hamabostaldian

parte hartzeaz gainera, Artzain Onaren Katedralaren oroipen-ekintzetan izango da.

*Nacida en Rentería, realiza sus estudios musicales en el Conservatorio Superior de San Sebastián, prosiguiendo su trayectoria musical en la coral Andra Mari. Simultáneamente estudia canto con Isabel Alvarez en la escuela del Orfeón Donostiarra y con Juan Eraso en Elizondo, para posteriormente trasladarse a Italia, donde ampliará su formación con el maestro Claude Thiòlas.*

*Es así mismo licenciada en Psicología.*

*En 1989 obtiene el primer premio en el concurso internacional de canto "Toti dal monte", e inicia así su carrera debutanto en Treviso (Italia) con "Don Giovanni" de Mozart. Desde entonces ha intervenido en Festivales y temporadas de ópera en Madrid, Barcelona, Bilbao, San Sebastián, Granada, Santander, Palma de Mallorca, Estrasburgo, Montpellier, Rovigo, Messina etc.*

*Recientemente ha debutado en el teatro de Bellas Artes de ciudad de México interpretando el papel de la Cenerentola de Rossini y en el teatro de la Zarzuela de Madrid interpretando a Meg de la ópera Fasltaff de Verdi.*

*Alterna la actividad concertística, interpretando obras del periodo barroco y renacentista con "La Capella reial de Cataluña" y "Hesperion XX", con la operística y entre los títulos de ópera que ha interpretado cabría destacar "La Cenerentola", "Il Barbiere di Siviglia", "Don Giovanni", "Le nozze di Figaro", "Cosi fan tutte", La clemenza di Tito", "Faust", "Les contes d'Hoffmann", "Falstaff", "La forza del destino", "Cavalleria rusticana", etc.*

*Próximos compromisos la llevarán a Málaga para interpretar a Olga de Eugenj Onjegjn, a Oviedo para interpretar a Rosina del "Barbero de Sevilla", a Bilbao para interpretar a Zerlina del "Don Giovanni", a la Coruña para interpretar a Niclause de "Los cuentos de Hoffmann" a las Palmas de Gran Canaria para interpretar a Meg de Falstaff.*

*En Lérida cantará la zarzuela "Goyescas", en Tenerife la 2ª sinfonía de Mendelssohn y en San Sebastián participará en la quincena musical y en los actos de conmemoración de la catedral del Buen Pastor.*

# PER ARNE FRANTZEN

Oslon jaioa da. Piano-ikasketak burutu zituen Osloko Norges Musikkhogskole-ko Jarle Sora eta Robert Rieflin irakasleekin eta ganbara-musika Stuttgarteko Staatliche Hochschule für Musik u. Darstellende Kumst-eko Konrad Richter eta Qünther Louegk irakasleekin. 1983an Norges Musikkholgskole-eko painojole izendatu zuten eta kanturako eta ganbara-musikarako laguntzan espezializatu da. Herri hartan gehien deitzen dutenetariko pianojolea da eta kontzertu ugari eman ditu prestigio handiko bakarlariekin. Bergeneko Jaialdian beti gonbidatzen dute. Behin eta berriz jo du Norvegiako Irrati Telebistarentzat eta aurten ganbara-musikako lehenengo diska grabatu du.

*Natural de Oslo. Estudió piano con los profesores Jarle Sora y Robert Riefling de las Norges Musikkhogskole en Oslo, y música de cámara con los profesores Konrad Richter y Qünther Louegk en la Staatliche Hochschule für Musik u. Darstellende Kumst de Stuttgart.*

*Desde 1983, es pianista de la Norges Musikkhogskole, y se ha especializado en acompañamiento de canto y música de cámara.*

*Es sin duda uno de los pianistas más requeridos en aquel País, con numerosos conciertos con solistas de prestigio, así como invitado asiduo del Festival de Bergen.*

*Ha trabajado en repetidas ocasiones para la Radio Televisión de Noruega, y este año ha grabado su primer disco de música de cámara.*



# KAMARAKO MUSIKA
# MUSICA DE CAMARA

**1997ko maiatzaren 21ean, Asteazkena, 20etan**
**Kaputxinoen elizan**

**Miércoles, 21 de mayo de 1997, 20 horas**
**Iglesia de Capuchinos**

| | |
|---|---|
| Ume malkoak<br>Trio de violín, cello y piano | Pablo SOROZABAL (San Sebastián 1897-1988) |
| Txori abestiak<br>Trio de violín, cello y piano | Pablo SOROZABAL |
| Eresi<br>Canto Vasco para violín y Piano | Pablo SOROZABAL |
| Inguruko<br>Danza Vasca para violín y Piano | Pablo SOROZABAL |
| Melodía dramática<br>para violoncello y piano | Cleto M. ZABALA (Bilbao 1847-1912) |
| Kolysanka: La Berceuse d'Aitacho Enia | Karol SZYMANOWSKI (Ucrania 1882-1937) |
| Apuntes de Violonchelo, op. 31 | Luis FRACA (Aizón 1929- ) |
| Improvisación<br>para violín y piano | Jesús GURIDI (Vitoria 1891-1963) |
| Aria (estilo antiguo)<br>para cello y piano | Luis de ARAMBURU (Vitoria 1905- ) |
| Pavana<br>para violín, violoncello y piano | José URUÑUELA (Vitoria 1891-1963) |
| Trio en Re mayor<br>para violín, piano y violoncello | José Luis ITURRALDE (San Sebastián 1908-1985) |

Trio Alzugaray
Andoni Mercero, bibolina
Arnau Tomas, biolontxeloa
Javier Pérez de Azpeitia, pianoa

# CLETO ZABALA ARAMBARRI

1847an jaio zen Bilbon eta Madrilen hil zen 1912an. Madrileko Kontserbatorioan burutu zituen ikasketak eta 1882an, Bizkaiko Diputazioaren beka bati esker, Italiara abiatu zen sakontzera. Bilboko Koral Elkarteko sortzailea eta lehenengo zuzendaria izan zen eta arrakasta handiz aritu zen.

"Eusko Abendaren Ereserki" himnoaren sortzailea izateaz gainera, musika-lan erlijioso eta profano ugari idatzi zituen: mezak, moteteak, pasodobleak, zortzikoak, zartzuelak, operak. "Melodía dramática" Francisco Gerner-en omenez sortu zuen biolontxelorako eta pianorako musika-lana ahaztuta geratu da musikagile bilbotar honen beste hainbat eta hainbat musika-lan bezala.

*Nació en Bilbao en 1847 y falleció en Madrid en 1912.*

*Estudió en el Conservatorio de Madrid y en 1882, pensionado por la Diputación de Bizkaia, amplió estudios en Italia.*

*Fue fundador y primer director de la Sociedad Coral de Bilbao, con la que obtuvo grandes éxitos.*

*Autor del himno vasco "Eusko Abendaren Ereserkia", dejó además una amplia lista de obras religiosas y profanas: Misas, motetes, pasodobles, zortzikos, zarzuelas, óperas.*

*"Melodía dramática" para violoncello y piano, dedicada a Francisco Gerner, es una de tantas obras de Cleto Zabala, que han quedado en el olvido.*

# JOSE URUÑUELA FERNANDEZ DE LARREA

Gasteizen jaio zen 1891n. Musikari autodidakta da, antzinako musikarekin maitemindua Frantziako inpresionismoaren eragin argia soma badaiteke ere bere sortze-lanetan. Guztiz jakina da Euskal Herriko doinuengatik erakusten zuen mirespena.

Espainiako gerra zibilean Frantziara atzerriratu zuten. Handik itzuli zenean, Donostian bizitzen hasi zen eta 1946an ballet klasikoko akademia bat zabaldu zuen. 1963an zendu zen.

*Nació en Vitoria-Gasteiz en 1891.*

*Es un músico autodidacto, enamorado de la música antigua, aunque el impresionismo francés dejó una clara huella en sus composiciones. Era proverbial su veneración por las melodías populares vascas.*

*En la guerra civil española padeció destierro a Francia. A su regreso se estableció en San Sebastián, donde en 1946 abrió una Academia de ballet clásico.*

*Falleció en 1963.*

# JOSE LUIS ITURRALDE

Donostian jaio zen 1908an. Secundino Esnaolarekin hasi zituen musika-ikasketak. Ondoren, bibolina, organoa, pianoa eta konposizioa landu zituen Alfredo Larrocha, Luis Urteaga eta Beltran Pagolarekin, hurrenez hurren.Gipuzkoako Diputazioaren beka bati esker Madrila abiatu zen ikasketak sakontzera eta bertan geratu zen 1955era arte bibolina jotzen Orkestra Filarmonikoan. Urte berean Donostiako Kontserbatorioko Solfeoko eta Musikaren Teoriako Katedra atera zuen oposizioz.

Konposizioa landu zuen batez ere eta arlo horretan era guztietako generoak ukitu zituen: erlijiosoa eta profanoa, korala, lieda, pianoa, organoa, arpa, ganbara-musika eta musika sinfonikoa, opera eta zartzuela, etab... Donostian hil zen 1985ean.

*Nació en San Sebastián en 1908. Inició sus estudios musicales con Secundino Esnaola. Después estudió violín con Alfredo Larrocha, órgano con Luis Urteaga, piano y composición con Beltrán Pagola. Becado por la Diputación de Gipuzkoa amplió estudios en Madrid, donde permaneció hasta 1955, como violinista en la Orquesta Filarmónica. En ese año ganó por oposición la Cátedra de Solfeo y Teoría de la Música en el Conservatorio donostiarra.*

*Cultivó ampliamente la composición, abarcando todos los géneros, religioso y profano, coral, lied, piano, órgano, arpa, música de cámara y música sinfónica, ópera y zarzuela, etc...*

*Falleció en San Sebastián en 1985.*

# KAROL SZYMANOWSKI

Tymoszowska-n (Ukrania) jaio zen 1882an eta Lausannen hil zen 1937an. Jaiotzez errusiarra bazen ere, polakoa zen berez. "Kolysanka-La Berceuse d'Aitacho Enia", op. 52, ustegabean sorturiko musika-lana, Donibane Lohitzuneko Aitacho Enia, bere laguna eta babesle amerikarra izan zen Dorothy Jordan Robinsonen etxean idatzi zuen 1925eko uztailean.

*Nació en 1882 en Tymoszowska (Ucrania) y murió en Lausanne en 1937. Aunque ruso de nacimiento, era polaco de raza.*

*"Kolysanka-La Berceuse d'Aitacho Enia", op. 52, es una pieza incidental, que Szymanowski escribió en San Juan de Luz en julio de 1925, en el chalet de Aitacho Enia, que pertenecía a Dorothy Jordan Robinson, su amiga y mecenas americana.*

# LUIS FRACA ROYO

Ainzon-en (Zaragoza) jaio zen 1929an. Donostiako eta Madrileko Kontserbatorioetan burutu zituen musika-ikasketak. Bere gurasoak Zarautzen hasi ziren bizitzen 1934an. 1958z geroztik Andoaingo Udal Musika Eskolako zuzendaria eta irakaslea izan da eta horrek euskal musikarekin harreman sakona izatera behartu du. Musikagintza-arloan pianorako musika-lanak, lieda, musika sinfonikoa, etab... landu ditu. Baina hoberen dagokion arloa ganbara-musikarena da.

*Nació en 1929 en Ainzón (Zaragoza). Hizo sus estudios musicales en los Conservatorios de San Sebastián y Madrid.*

*Sus padres se establecieron en Zarauz en 1934. Desde 1958 ha sido Director y Profesor de la Escuela Municipal de Música de Andoain, lo que le ha obligado a relacionarse profundamente con la música vasca.*

*Como compositor, posee una amplia lista de obras pianísticas, lied, música sinfónica, etc. Pero se desenvuelve con gran dominio en la música de cámara.*

# TRIO ALZUGARAY

1996an "Monserrat Alavedra" Ganbara Musikako III. Lehiaketan Lehenengo Saria irabazi ondoren bihurtu da talde garrantzitsua ganbara-arloan. Laister Granadako Nazioarteko Jaialdian parte hartuko dute, Donostiako Musika Kultura Zikloan, Matadeperako Nazioarteko Jaialdian, Vendrelleko Pau Casals Auditorioan eta Beethovenen Kontzertu Hirukoitza joko dute Estatuan zehar European Sinfonietta-rekin.

Andoni Mercero Donostiarra da (1973). Bibolina eta biola jotzen ditu eta bakarlari-lanetan aritzeaz gainera, hainbat ganbara-taldetako kidea da: Casals Laukotea (Espainiako "Juventudes Musicales" Lehiaketan Lehenengo Saria), Madrid Contemporary Ensemble. Zakhar Bron-ekin Reina Sofia Eskolan eta David Zafer-ekin Torontoko Unibertsitatean burutu ditu ikasketak. "Sarasate", "Isidro Gyenes" eta Soria Hiriko Lehiaketetan saritu dute.

Arnau Tomas Bartzelonakoa da (1974). Bartzelonako, Utrecht-eko eta Basileako kontserbatorioetan eta Reina Sofia Eskolako Ivan Monighetti-rekin ikasi du. Ondoko lehiaketa hauetan saritu dute: "Germans Claret", Holandako Musika Gaztedia, Manresa Hiriko Lehiaketa eta duela gutxi Espainiako "Juventudes Musicales" Lehiaketa Iraunkorrean.

Javier Perez de Azpeitia Berakoa da (1963). Donostiako, Madrileko eta Liejako kontserbatorioetan burutu zituen musika-ikasketak. Donostiako Goi-mailako Musika Kontserbatorioko irakaslea da eta bakarlari-lanetan aritzeaz gainera, hainbat ganbara-taldetan jotzen du. Ondoko lehiaketa hauetan eskuratu ditu sariak: Gipuzkoako Pianojole Gazteen Lehiaketan, Albacete Hiriko Lehiaketan eta Tenerifen. Gaur egun Donostiako Nazioarteko Zinemaldiarekin eta Espainiako Filmoteka Nazionalarekin dihardu lankidetzan.

*El Trio Alzugaray se ha consolidado como un conjunto importante en el panorama camerístico tras haber obtenido el Primer Premio en el III Concurso de Música de Cámara "Monserrat Alavedra" celebrado a finales de 1996. En un futuro actuarán en el Festival Internacional de Granada, en la temporada de Cultura Musical de San Sebastián, Festival Internacional de Matadepera, Auditorio Pau Casals del Vendrell, así como interpretando el Triple Concierto de Beethoven con la European Sinfonietta en una gira por el estado.*

*Andoni Mercero es natural de Donosti (1973). Compagina el violín y la viola, y además de ofrecer conciertos como solista, pertenece a otros grupos de cámara como el Cuarteto Casals (1er. Premio Concurso Juventudes Musicales de España) o el Madrid Contemporary Ensemble. Ha estudiado con Zakhar Bron y David Zafer en la Escuela Reina Sofía y en la Universidad de Toronto repectivamente. Ha sido premiado en los Concursos "Sarasate", "Isidro Gyenes", y "Ciudad de Soria".*

*Arnau Tomas es natural de Barcelona (1974). Ha estudiado en los conservatorios de Barcelona, Utrecht y Basilea, así como en la Escuela Reina Sofía con Ivan Monighetti. Ha ganado los concursos "Germans Claret", Juventudes Musicales de Holanda, Ciudad de Manresa y ultimamente el Concurso Permanente de Juventudes Musicales de España.*

*Javier Pérez de Azpeitia es natural de Bera (1963). Realizó sus estudios en los conservatorios de Donostia, Madrid y Lieja. Compagina la docencia en el Conservatorio Superior de Donostia con recitales como solista o con diversos grupos de cámara. Ha sido premiado en los concursos "Jóvenes pianistas de Gipuzkoa", Ciudad de Albacete y Sta. Cruz de Tenerife. Ultimamente colabora de forma continua con el Festival Internacional de Cine de Donostia y con la Filmoteca Nacional de España.*



# ABANGUARDIAKO EUSKAL MUSIKA
# MUSICOS VASCOS DE VANGUARDIA

**1997ko maiatzaren 22an, Osteguna, 20etan**
**Kaputxinoen elizan**

**Jueves, 22 de mayo de 1997, 20 horas**
**Iglesia de Capuchinos**

* I had a dream - en memoria de Luther King ........................ Sofía MARTINEZ (Vitoria 1965- )

* Fragmentation ........................ Joseba TORRE (Bilbao 1968- )

* 3 Proverbios ........................ Martin ZALBA (Pamplona - )
  (Texto de Antonio Machado)

* 5 Bagatelas (sobre un tema de Prokofiev) ........................ Patxi LARRAÑAGA (Errenteria 1963- )

Sorginkeriak ........................ Ramón LAZKANO (Donostia 1968- )

María Mendizabal, sopranoa
Ostots, musika taldea:

Carlos Rosat, flauta
José Miguel Martínez Esparza, klarinetea
Josetxo Silguero, saxoa
Xabier Gil, bibolina
Ursula Wejman, txeloa
Imanol Elizasu, pianoa
Jesús María Agirre, perkusioa

Zuzendaria: Ramon Lazkano

* Estrenaldi nagusia

"Casa Erviti"k utziriko Yamaha "Gran Cola" pianoa

# SOFIA MARTINEZ

Gasteizen jaio zen 1965ean. Piano-ikasketak burutzeaz gainera, Gasteizeko Udal Musika Bandako tronpajole bekadun ohorezkoa da. 1984an kontrapuntoko eta fugako ikasketak hasi zituen Madrileko Goi-mailako Musika Kontserbatorioan eta hiru urte geroago konposiziokoak Carmelo Bernaolarekin Gasteizeko Jesus Guridi Musika Kontserbatorioan. Arabako Diputazioaren, Espainiako Bankuaren eta Villecroze-ko Magnanerie-ren beka bati esker, konposizio-ikasketak sakondu zituen Parisen eta elektroakustikakoak, azterketakoak eta orkestra-zuzendaritzakoak Romainvilleko Musika Eskolan, Pariseko Goi-mailako Kontserbatorio Nazionalean eta Evry-ko Musika Eskolan Emmanuel Nunes, Laurent Cuniot, Luis Naon, Alain Louvier eta Nicolas Brochot musikagileekin. Luis de Pablok, Luigi Nonok, Francisco Guerrerok, Cristobal Halffterek, Gabriel Brncic-ek zuzendutako hainbat mintegitan parte hartzeaz gainera, Espainian eta Alemanian antolatutako musikagileen hainbat topaketatan izan da.

Radio Clásica-k irratsaiotu dituen hainbat musika-lan estrenatu ditu ondoko jaialdi hauetan: Oteizari Omenaldi Kontzertuan (Gasteizen, 1989), Errenteriako XVIII. MUSIKASTEn (Gipuzkoa, 1990), XX. Mendeko I. Musika Astean (Gasteiz, 1994), Musiques croisées eta Musika Elektroakustikoaren Ihardunaldietan (Madril eta Gasteiz,1997).

Musikagintzan aritzeaz gainera, Mostoles-eko eta Parmain-eko (Frantzia) kontserbatorioetako irakaslea izan da eta Noisy le Sec-eko Garcia Lorca Abesbatzaren zuzendaria.

*Pianista de formación y trompa becaria honoraria de la Banda Municipal de Música de Vitoria, comenzó los estudios de contrapunto y fuga en 1984 en el Real Conservatorio Superior de Música de Madrid y composición tres años más tarde con Carmelo Bernaola en el Conservatorio de Música Jesús Guridi de Vitoria. Becada por la Diputación de Alava, el Banco de España y la Magnanerie de Villecroze, continuó los estudios de composición con, electroacústica, análisis y dirección de orquesta en París con los compositores Emmanuel Nunes, Laurent Cunior, Luis Naón, Alain louvier y Nicolas Brochot en la Ecole de Musique de Romainville, Conservatorio Nacional Superior de París y Ecole de Musique de Evry. Ha asistido a seminarios impartidos por Luis de Pablo, Luigi Nono, Francisco Guerrero, Cristóbal Halffter, Gabriel Brncic, así como a encuentros de compositores en España y Alemania.*

*Ha estrenado varias de sus obras dentro del Concierto Homenaje a Oteiza (Vitoria, 1989), XVIII Semana Musical de Rentería Musikaste (Guipúzcoa, 1990), I Semana de Música del Siglo XX (Vitoria, 1994), Musiques Croisées y Jornadas de Música Electroacústica (Madrid, Vitoria, 1997), posteriormente retransmitidas por Radio Clásica.*

*Además de su trabajo como compositora, ha sido profesora en los conservatorios de Móstoles y Parmain (Francia), y ha dirigido la coral García Lorca de Noisy le Sec.*

# MARTIN ZALBA IBAÑEZ

Iruñean jaio zen eta Loiolako Eskolanian hasi zituen musika-ikasketak Javier Sagüés jesuitaren zuzendaritzapean. Ondoren, "Pablo Sarasate" Goi-mailako Musika Kontserbatorioan sartu zen eta Piano- eta Konposizio-ikasketak burutu zituen. Bi sari irabazi zituen: Pianoko Karrera Amaierako Saria eta Paulino Caballero Saria.

Ondoren, Sofiara (Bulgaria) abiatu zen bertako Zdravka Radoilska Katedradunarekin piano-ikasketak sakontzeko. Gero, Baionan sakondu zituen Mdme Doué-rekin eta kontzertuak emateko errepertorioa prestatu zuen Madrilen Ramon Coll-ekin.

Interpretazioko eta Pedagogiako Nazioarteko eta bertako ikastaro askotan izan da.

Pianoa jotzen irakasteaz gainera, kontzertu ugari ematen ditu eta Piano-lehiaketa askotako epaimahaikidea da.

Ondoren, genero askotako musika-lanak estrenatu ditu eta musika garaikideko hainbat lehiaketatan aurkeztu ditu.

Gaur egun, Iruñeko Goi-mailako Musika Kontserbatorioan Kontrapuntoa eta Fuga irakasten ditu.

1995ean Iruñeko Udalak Konposizio Saria eman zion.

Musika-lanak: Attendite (4 ahots nahasietara), La noria (emakumezko 4 ahotsetara), La estrella (4 ahots nahasietara), pianorako preludioak, 3 momentos musicales (Pianoa), Syrinx (ganbara-musika), piano eta orkestrarako Kontzertua.

*Natural de Pamplona, inicia los estudios musicales en la Escolanía Loyola bajo la dirección de Javier Sagüés, (S.J.). Ingresa posteriormente en el Conservatorio Superior Pablo Sarasate donde continúa su formación en Piano y Composición. Premio fin de carrera y premio Paulino Caballero de interpretación pianística.*

*Finalizados allí sus estudios, prosigue el perfeccionamiento de piano con Zdravka Radoilska, catedrática del Conservatorio de Sofía (Bulgaria) y con Mdme. Doué en Bayona. Posteriormente prepara repertorio de concierto con Ramón Coll en Madrid.*

*Asiste a cursillos nacionales e internacionales de interpretación y pedagogía.*

*Compagina la docencia del piano con una intensa actividad concertística y forma parte como miembro de jurado en concursos de interpretación pianística.*

*Pronto se interesa por la composición y comienza a estrenar obras de diferentes géneros musicales en conciertos y certámenes de música contemporánea.*

*Actualmente es profesor de contrapunto y fuga en el Conservatorio Superior Pablo Sarasate de Pamplona.*

*Premio de composición del Ayto. de Pamplona 1995.*

*Obras: Attendite (4 v.m.), la noria (4 v.bl.), la estrella (4 v.m.), Preludios para piano, 3 momentos musicales (piano), Syrinx (música de cámara), Concierto para piano y orquesta.*

# PATXI LARRAÑAGA

Konposizio-ikasketak burutu ditu Donostiako eta Iruñeko Kontserbatorioetan eta gero Konposizio Garaikidekoak sakondu Espainiako eta atzerriko hainbat maisurekin (J. Soler, C. Bernaola, C. Halffter, J. Villa-Rojo, F. Donatoni, L. Nono, G. Manzoni, A. Gentilucci, besteak beste). Hala ere, Ramon Barce eta Agustin Gonzalez Acilu dira izan dituen irakaslerik nagusienak; hauengandik ikasi du, batez ere, konposizioaren aurrean erakutsi beharreko nolabaiteko jarrera etikoa. Arkitektoa da era berean. Iruñeko Taldea 1985ean eratutako musikagile-taldearen sortzailea eta partaidea da. Orain arte sortu dituen musika-lanak musika garaikidearen inguruan Espainian burutu diren jaialdi nagusienetan entzun ahal izan dira (MUSIKASTE, Donostian antolatzen den XX. Mendeko Musika Astea, Alacanteko Musika Garaikidearen Nazioarteko jaialdia, Palma de Mallorcako Encontres de Compositors, Valentziako Ensems) eta atzerriko beste hainbat herritan (Italia, Hungaria, Alemania, EEBB, Suiza). Idatzi dituen musika-lanak aztergai dira kontserbatorio askotan. Musika-kazetaritzan aritu da prentsan eta telebistan eta kritikak eta saioak idatzi ditu hainbat egunkaritan eta aldizkaritan (Creación, Revista de Occidente, etab...). Lan honengatik hainbat sari ere eskuratu ditu , horien artean, Ritmo eta Valls Gorina Sariak. Ars Incognita bilduma diskografikoaren zuzendaria da eta Cuadernos de Veruela musika garaikidearen inguruan laister sortuko den urtekariaren argitaratzailea. Musikaren Historiaren eta Artearen Historiaren irakaslea izan da hainbat kontserbatoriotan. Gaur egun Erromako Cervantes Institutuko kultur kudeatzailea da.

*Nacido en Rentería en 1963. Estudió composición en los Conservatorios de San Sebastián y Pamplona, ampliando posteriormente sus conocimientos de Composición Contemporánea con maestros españoles y extranjeros (J.Soler, C.Bernaola, C. Halffter, J. Villa-Rojo, F.Donatoni, L.Nono, G.Manzoni, A.Gentilucci, entre otros) y principalmente con Ramón Barce y Agustín González Acilu, de quienes aprendió sobre una cierta postura ética ante la composición. Es asimismo, arquitecto.*

*Es miembro fundador de Iruñeako taldea, grupo de compositores creado en 1985. Su música se ha podido escuchar en las principales manifestaciones que se celebran en España en torno a la música contemporánea (Musikaste, Semana de Música del Siglo XX de San Sebastián, Círculo de Bellas Artes y Auditorio Nacional de Madrid, Festival Internacional de Música Contemporánea de Alicante, Encontres de Compositors de Palma de Mallorca, Ensems de Valencia) y en diversos países del extranjero (Italia, Hungría, Alemania, Estados Unidos, Suiza). Sus obras publicadas son objeto de estudio en distintos conservatorios. Ha ejercido el periodismo musical en prensa y televisión, escribiendo crítica y ensayo en periódicos y revistas (Creación, Revista de Occidente, etc.). Por esta labor ha recibido los premios Ritmo y Valls Gorina. Es director de la colección discográfica Ars Incognita y editor del anuario de música contemporánea Cuadernos de Veruela, cuyo primer número verá la luz próximamente.*

*Ha sido profesor de Historia de la Música y de Historia del Arte en diversos conservatorios. Es en la actualidad gestor cultural del Instituto Cervantes de Roma.*

# RAMON LAZKANO

Donostian jaio zen 1968an. Pianoko eta konposizioko ikasketak burutu ditu Donostiako Musika Kontserbatorio Nagusian Juan Padrosa eta Francisco Escudero maisuekin. Harmoniako Bigarren Saria lortu zuen 1984an eta konposizioko Lehenengoa 1986an. Gipuzkoako Foru Diputazioaren beka baten laguntzaz, Pariseko Musika Kontserbatorio Nagusian konposizio eta orkestrazio-ikasketak burutu ditu Alain Bancquart eta Gérard Griseyekin; musika-informatika IRCAMen Tristan Murail eta Philippe Manoury-rekin. Konposizioko Lehenengo Saria irabazi zuen 1990ean eta sakontzezikloan onartu zuten. Sasakawa Fundazioaren beka bati esker, azterketa eta konposizio-ikasketak burutu ditu Montrealen Gilles Tremblayekin. Azterketa eta konposizioari buruzko zenbait ikastaro eta mintegitan izan da Helmut Lachenmann, Klaus Huber, Pierre Boulez, Henri Dutilleux, Brian Ferneyhough, Franco Donatoni, Cristobal Halffter eta Luis de Pablorekin. Era berean, Montrealeko Mc Gill Unibertsitateko hizkuntz ikastaroetan esku hartu du. XX. mendeko Musika eta Musikologiari dagokion Dotoretza-ikasketen Diploma atera du Pariseko "Ecole des Hautes Etudes en Sciences Sociales" ikastexean Hugues Dufourt-en zuzendaritzapean burututako "Les polyrythmies dans la musique savante du XXème siècle; historique et critique. (Messiaen, Ligeti, Carter)" memoriaren bidez.
Bere konposizioengatik zenbait sari jasotzeaz gainera (Monakoko Pierre Printzearen Fundazioko Saria, INAEMen Saria eta Espainiako Ikastetxearena, Gaudeamus Lehiaketan Aipamen Berezia, Espainiako Gazte Okestraren Lehiaketan Aipamen Berezia, etab...), Frantzia, Espainia, Alemania, Holanda, Belgika, Italia, Ukrania, Danimarka, Errusia eta beste zenbait herritan jo dituzte bere musikalanak eta ondoko jaialdi hauetan entzun ahal izan dira: Radio France-ko "Présences 92", Kiev-eko International Youth Music Forum (1993), Gaudeamus Muziekweek (1992, 1993), Bruselako Ars Musica (1996), Kopenhagueko Musika Garaikidearen Nazioarteko Elkartea (1996), Donostiako Musika Hamabostaldia (1990, 1992, 1995), Musica Senza Frontiere (Bologna), Hebischer Rundfunk, etab...
"Tendencias de la Música Contemporánea" Mintegiaren zuzendaria izan da Euskal Herriko Unibertsitatean 1994an, Versalles-eko MAFPENek antolatutako azterketa-mintegietako hizlaria 1993 eta 1994an eta Eusko Jaurlaritzaren Garatu Planeko "XX. mendeko musika kultoari buruzko ikastaro historiko-analitiko"aren irakaslea. Gaur egun, musika garaikidearen hedapenerako sortu den Ostots Taldearen, Euskadiko Orkestra Sinfonikotik ateratako bakarlariez osaturiko taldearen zuzendaria da.

*Nacido en San Sebastián en 1968. Estudia piano y composición con Juan Padrosa y Francisco Escudero en el Conservatorio Superior de San Sebastián, donde obtiene un segundo premio de armonía (1984) y un primer premio de composición (1986). Becario de la Diputación Foral de Gipuzkoa, es admitido en el Conservatorio Nacional Superior de Música de Paris, donde estudia composición y orquestación con Alain Bancquart y Gérard Grisey; informática musical en el IRCAM con Tristan Murail y Philippe Manoury. Obtiene el Primer Premio de Composición en 1990, y es admitido en el ciclo de perfeccionamiento. Becario de la Fundación Sasakawa, estudia composición y análisis en Montreal con Gilles Tremblay. Ha estudiado igualmente lingüística en la Universidad Mc Gill de Montreal. En 1994 obtiene un DEA (Diploma de Estudios de Doctorado) en Música y Musicología del siglo XX en la Ecole des Hautes Etudes en Sciences Sociales de París con su memoria "Les polyrythmies dans la musique savante du XXème siècle; historique et critique. (Messiaen, Ligeti, Carter)" bajo la dirección de Hugues Dufourt. Ha sido becario de la Academia Española de Historia, Arqueología y Bellas Artes en Roma (1994-95). Ha recibido diversos premios por sus composiciones*

# OSTOTS, MUSIKA TALDEA

Talde gaztea eta bakarra da Euskal Herrian, ez baitago musika garaikidearen arloan bera bezalako talde gehiagorik. 1995ean sortu zenetik, ondoko leku eta jaialdi hauetan parte hartu du arrakasta handiz bai entzule-kopuruaren aldetik, bai kritikaren aldetik:

- Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren Egoitzan,
- Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean,
- Errenteriako MUSIKASTE 96an,
- Donostian 1996ko Musika Hamabostaldian,
- Zarauzko VIII. Musika Zikloan,
- Bilboko Udal Liburutegian antolatzen den "Aula Abierta" Zikloan (Bilboko Goi-mailako Kontserbatorioarekin lankidetzan)
- Gipuzkoako Foru Diputazioaren Gaztemania Zikloan (Irungo Amaia Antzokian eta Eibarreko Musika Kontserbatorioan).

Boulez, Schönberg, Webern, Donatoni, Grisey, Sciarrino, Takemitsu, Feldman, Bernaola, De Pablo eta beste hainbat musikagileren lanak jotzeaz gainera, Francisco Escuderoren Concierto para Clave estrenatu du. Era berean, hainbat euskal musikagile gazteren lanak estrenatu ditu, horien artean, Mikel Mate eta Zuriñe Fernandez Gerenebarrenarenak. OSTOTSek datorren denboraldian Joseba Torre, Martin Zalba, Patxi Larrañaga eta Sofia Martinezen musika-lanak estrenatzeko asmoak ditu. Era berean, euskal musikagileen lanez osaturiko CD bat grabatuko du. OSTOTSek Eusko Jaurlaritzaren Kultur Saileko babesa du eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren laguntza.

*Nace, bajo el auspicio de la Consejería de Cultura del Gobierno Vasco, de la necesidad de dotar al País Vasco de una agrupación estable, que difunda la música del siglo XX en Euskal Herria y proponga a los compositores vascos un medio, para interpretar y promocionar sus creaciones.*

*Ostots se conforma como un conjunto de solistas de la Orquesta Sinfónica de Euskadi, con la firma de un convenio de cooperación entre ambos.*

*Ostots es un conjunto joven y único en sus características en el País Vasco. Desde su constitución en el otoño 1995, nuestra agrupación ha actuado con gran éxito de público y de crítica en:*

- *Sede de la Orquesta Sinfónica de Euskadi*
- *Koldo Mitxelena Kulturunea de San Sebastián*
- *Musikaste de Rentería 1996*
- *Quincena Musical de San Sebastián*
- *VIII Ciclo de Música de Zarauz*
- *Ciclo "Aula Abierta". Biblioteca Municipal de Bilbao (en colaboración con el Conservatorio Superior de Bilbao)*
- *Ciclo Gaztemania. Diputación Foral de Gipuzkoa (Teatro Amaia de Irún y Conservatorio de Música de Eibar)*

*Con programas constituídos por obras de Boulez, Schönberg, Webern, Donatoni, Grisey, Sciarrino, Takemitsu, Feldman, Bernaola, De Pablo, ... y ha estrenado el Concierto para Clave de Francisco Escudero así como obras de jóvenes compositores vascos, entre los que se incluyen Mikel Mate y Zuriñe Fernández Gerenabarrena. OSTOTS tiene previsto estrenar, durante la próxima temporada, obras de Joseba Torre, Martin Zalba, Patxi Larrañaga y Sofía Martínez. Igualmente tiene prevista la grabación de un CD dedicado a obras de compositores vascos.*

*Ostots es una agrupación subvencionada por la Consejería de Cultura del Gobierno Vasco y recibe la ayuda de la Orquesta Sinfónica de Euskadi.*

# MARIA MENDIZABAL ITURRIA

Errenterian jaio zen eta Oiartzunen burutu zituen oinarrizko musika-ikasketak. Industri injineritza ikasi zuen Nafarroako Unibertsitatean. Hainbat korutan kantatu du, horien artean Donostiako Orfeoian eta Andra Mari Abesbatzan, Anton Aiestaranen eta Jose Luis Ansorenaren zuzendaritzapean, hurrenez hurren.

Kantu-ikasketak burutu ditu bide ez ofizialetik eta Juan Eraso, Almudena Ortegarekin ikasteaz gainera, Tonino Coscarelli Olarra Fundazioko Fernando Bandera, Marcella Reale eta Vicente La Ferla teknika eta errepertorioko maisu ospetsuekin, besteak beste, aritu da. Ondoren Indianako Unibertsitatean sakondu zituen ikasketak Carlos Montané maisuarekin eta bertan bi urtetan zehar ikasteko beka bat eskuratu. Handik itzuli ondoren, Donostiako Goi-mailako Musika Kontserbatorioko titulazio akademiko-profesionala lortu du Bikain kalifikazioaz eta Ohoreko Sariaz maila guztietan. Gaur egun, Mary Downing soprano amerikarrarekin teknika sakontzen ari da.

Hainbat ikastaro ere burutu ditu Felix Lavillarekin, Isabel Penagosekin, Marimi del Pozorekin, Aldo Baldinekin, Giuseppe Valdengorekin, Ileana Cotrubasekin, Eva Randovarekin, etab...

Bilboko eta Logroñoko nazioarteko lehiaketetan saritu dute.

Bilboko Arriaga Antzokiko, Sevillako Maestranzako eta Iruñeko Gaiarre Antzokiko opera-denboraldietan parte hartzeaz gainera, Bilboko, Euskadiko eta Sevillako Orkestra Sinfonikoekin, besteak beste, aritu da lankidetzan.

*Nace en Rentería y realiza sus estudios musicales básicos en Oiartzun. Completa los estudios de ingeniero industrial en la Universidad de Navarra. Ha formado parte de diversas agrupaciones corales, entre ellas el Orfeón Donostiarra y la Coral Andra Mari bajo la dirección de Antxon Aiestaran y José Luis Ansorena respectivamente.*

*Realiza los estudios de canto por vía no oficial, recibiendo lecciones de Juan Eraso, Almudena Ortega y en la fundación Tonino Coscarelli Olarra de los prestigiosos maestros de técnica y repertorio Fernando Bandera, Marcella Reale y Vicente La Ferla entre otros. Prosigue sus estudios en la Universidad de Indiana, EEUU donde se le concede una beca de dos años, con el maestro Carlos Montané. A su vuelta obtiene la titulación académica profesional por el Conservatorio Superior de Música de San Sebastián, con la calificaicón de Sobresaliente con Premio de Honor en todos sus grados. Actualmente perfecciona su técnica con la soprano americana Mary Downing.*

*Ha realizado diversos cursos con Félix Lavilla, Isabel Penagos, Marimi del Pozo, Aldo Baldin, Giuseppe Valdengo, Ileana Cotrubas, Eva Randová, etc...*

*Ha sido galardonada en los concursos internacionales de Bilbao y Logroño.*

*Ha participado en las temporadas de ópera de los teatros Arriaga de Bilbao y de la Maestranza de Sevilla, y Gayarre de Pamplona, y colaborado con las orquestas sinfónicas de bilbao, Euskadi y Sevilla entre otras.*

Bilbon jaio zen 1968an. Bertako "J.C. Arriaga" Kontserbatorioan eta "J. de Antxieta" Musika Ikastegian eta Madrileko Goi-mailako Errege Kontserbatorioan burutu zituen musika-ikasketak eta kalifikazio gorenak eta ezohiko sariak irabazi. Pariseko Goi-mailako Musika Kontserbatorio Nazionalean sartu zen eta konposizioko eta orkestra-zuzendaritzako goi-mailako ikasketak burutu zituen. Aho batez eman zizkioten Karrera Amaierako Lehenengo Saria eta Hobekuntza Zikloa. Bide batez, Pariseko IRCAMen informatikako eta musika-elektronikako ikastaroak (Master) burutu zituen. Paris VIII.eko Unibertsitatean Musikologiako lizentziaduna da. Gaur egun, Pittsburg-eko Carnegie Unibertsitatean orkestra-zuzendaritzako Master bat egiten ari da. Ondoko irakasle hauekin egin du lana: L.- Balada, A. Bancquart, J.S. Bureau, A. Blancafort, R. Castro, J. Cordero, E.A. Crespo, L. Cuniot, L. De Pablo, G. Grisey, B. Jolas, F. Koch, E. Nunes, P. Mefano, T. Murail, H. Vaggione.

Era berean, ikastaro askotan parte hartzeaz gain, ondoko irakasle hauek emandako Eskola Magistraletan izan da: L. Balada, F. Donatoni, B. Ferneyhough, C. Halffter, K. Huber, M. Lindberg, J.C. Risset, D. Jonson, besteak beste. Ondoko nazioarteko jaialdi hauetan parte hartu du: Alacanteko Musika Jaialdian, Bilboko Musika Jaialdian, Errenteriako MUSIKASTEn, Donostiako Musika Hmabostaldian, Darmstadt-eko (Alemania) Udako Ikastaroetan, La Habanako (Cuba) Musika Jaialdian, Milan-en (Italia) buruturiko Musika espainiarraren hizkera berriak, Oportoko (Portugal) Musikako III. Jardunaldiak, Estrasburgoko (Frantzia) Musika Jaialdian, etab... Erakunde askoren enkarguzko lanak jaso ditu, horien artean CDMC Musika Garaikidearen Hedapenerako Zentruak agindutakoak, INAEMenak, Kultur Ministeritzarenak eta beste hainbat erakunde eta elkarte frantziarrek, alemaniarrek eta gehiagok agindu dizkiotenak. Hitzaldi eta mahai-inguru askotan izan da Parisen, Milanen, Darmstadten, Madrilen, Donostian, Oviedon, Bilbon, etab...

Lehenengo Sari ugari irabazi ditu bertako eta nazioarteko lehiaketa askotan: 1992an "Pablo Sorozabal" Nazioarteko Lehiaketan, 1993an "Nadia Boulanger" Nazioarteko Lehiaketan, 1995ean Murtziako Orkestrarako Musikako Nazioarteko Lehiaketan, INAEMen Lehiaketan, 1995ean Pariseko Espainiako Ikastetxekoan, 1996an Bourges-eko (Frantzia) Musika Elektroakustikako Nazioarteko Lehiaketan Aipamen Berezia. Bizkaiko Diputazioaren eta Kultur Ministeritzaren bekak jaso ditu Parisen goi-mailako ikasketak burutu ahal izateko. 1996-97 ikasturterako Hezkuntza eta Kultur Ministeritzak eta Fulbright Batzordeak beka bat eman diote Orkestra-zuzendaritzako Master bat Pittsburg-eko (Pennsylvania- EEBB) Carnegie Mellon Unibertsitatean egiteko

*Nace en Bilbao en 1968. Cursa estudios musicales en el Conservatorio "J.C. de Arriaga" y en el Centro de Estudios Musicales "J. Antxieta" de su ciudad natal, así como en el Real Conservatorio Superior de Música de Madrid, obteniendo las más altas calificaciones y premios extraordinarios. Continúa su formación en el Conservatorio Nacional Superior de Música de Paris donde realiza estudios superiores de composición y dirección de orquesta, obteniendo el Primer Premio de fin de carrera por unanimidad y Ciclo de Perfeccionamiento. Paralelamente realiza el Curso (Master) de informática y electrónica musical del IRCAM de París. Se licencia igualmente en Musicología por la universidad de Paris VIII. Actualmente realiza un Master en dirección de orquesta en la universidad Carnegie Mellon de Pittsburg.*

*Ha trabajado con los profesores: L. Balada, A. Banequart, J.S. Bereau, A. Blancafort, R. Castro, J. Cordero, E.A. Crespo, L. Cuniot, L. de Pablo, G. Grisey, B. Jolas, F. Koch, E. Nunes, P. Mefano, T. Murail, H. Vaggione. Ha asistido a gran número de Cursos y Clases Magistrales impartidas por los maestros: L. Balada, F. Donatoni, B. Ferneyhough, C. Halffter, K. Huber, M. Lindberg, J.C. Risset, D. Jonson, entre otros.*

*Ha participado en diversos festivales internacionales como el Festival de Música de Alicante, Festival de Música de Bilbao, Musikaste de Rentería, Quincena Musical de San Sebastián, Cursos de Verano de Darmstadt (Alemania). Festival de música de La Habana (Cuba), III Jornadas musicales de Oporto (Portugal), Festival de Música de Strasbourg (Francia), etc...*

*Recibe encargos del Centro para la Difusión de la Música Contemporánea (CDMC), del INAEM del Ministerio de Cultura, de diversas agrupaciones e instituciones francesas, alemanas,...*

*Ha realizado conferencias y participado en mesas redondas en Paris, Milán y Darmstadt (Alemania), Madrid, San Sebastián, Oviedo, Bilbao, etc..*

*Obtiene Primeros Premios en concursos nacionales e internacionales de composición como el Concurso Internacional "Pablo Sorozabal" 1992, Premio Internacional "Nadia Boulanger" 1993, Concurso de la SGAE 1994, Concurso Internacional de Música de Orquesta de Murcia 1995, Concurso Internacional de Música Electroacústica de Bourges (Francia) 1996.*

*Ha sido becado por la Exma. Diputación Foral de Vizcaya y el Ministerio de Cultura para realizar estudios superiores en Paris, así como por la Comisión Fulbright y el Ministerio de Educación y Cultura para realizar un Master (curso 1996-97) en Dirección de orquesta en la universidad Carnegie Mellon de Pittsburgh (Pennsylvania-USA).*



# KORUEN EGUNA
# DIA CORAL

**1997ko maiatzaren 23an, Ostirala, 20,30etan**
**Kaputxinoen elizan**

**Viernes, 23 de mayo de 1997, 20,30 horas**
**Iglesia de Capuchinos**

Ithurrira goizean ........ Ermend Bonnal (Bordeaux 1880-1944)
Maitia, nun zira ........ Joël Merah (1969- )
Bi gauza ........ Sabin Salaberri (Aramaiona 1934- )
Madalen (II) ........ Sabin Salaberri
*Amatxo maitia ........ Eustaquio Gurrutxaga (Aizarna 1897-1988)
Rapsodia vasca ........ Arturo Intxausti (Bilbao 1897-1986)
La Virgencita cantaba ........ Bruno Imaz (Zaldibia 1897-1972)
Quítate de la esquina, majo ........ Angel Embil (Zumaia 1897-1980)
Izar ederra ........ Pablo Sorozábal (San Sebastián 1897-1988)
Pakea ........ Sabin Salaberri
Begi urdin ........ Pablo Sorozábal
Urzo luma ........ Pablo Sorozábal
Arrosa lilia ........ Pablo Sorozábal
*Nahi zuya yin ........ Pablo Sorozábal

Iparraldeko "Groupe Vocal Présence"
Gasteizko Samaniego Korala
Aitor Sáez de Gortázar
Bilboko Koral Elkartea
Gorka Sierra
Iruñeako San Fermin Abesbatza
Fermin Iriarte
Gasteizko Araba Koroa
Roberto Ugarte
Errenteriako Andra Mari Korala
José Manuel Tife

"Casa Erviti"-k utziriko Yamaha "Gran Cola" pianoa * Estrenaldi nagusia

## ERMEND BONNAL

Bordelen jaio zen 1880an. Vierne-ren eta Guilmant-en ikaslea izan zen eta ganbara-musika elkarte ugari sortu zituen Bordelen eta Frantziako Hego-mendebaldean. Baionako Musika Eskolako zuzendaria izan zen eta Saint André Katedraleko organojolea. 1940an Tournemire bere maisuaren lekua hartu zuen Pariseko Sainte-Clotildeko organoan. Sortu dituen musika-lan guztien artean azpimarratzekoak dira Euskal Herriari eskaini dizkionak.

*Nació en Burdeos en 1880. Discípulo de Vierne y de Guilmant, fundó varias sociedades de música de cámara en Burdeos y el Sud-oeste francés. Fue director de la Escuela de Música de Baiona y organista de Saint-André. Sucedió en 1940 a su maestro Tournemire en el órgano de Sainte-Clotilde de París. Entre su obra compositiva destaca la dedicada al País Vasco. Murió en Baiona en 1944.*

## JOEL MERAH

Baionan 1969an jaio zen. Baiona-Euskal Kostaldeko Musika Eskola Nazionalean hasi zituen musika-ikasketak eta gitarrako, ganbara-musikako, konposizioko, orkestrazioko eta azterketako sariak irabazi zituen. Pariseko Kontserbatorioan sakondu zituen konposizio-ikasketak Nunezekin eta Griseyekin. 1995ean Lehenengo Saria eskuratu zuen "Antiennes" musika-lanaz koruentzat eta Picardie-ko katedraletako kapera-maisuentzat antolatutako konposizio-lehiaketa europearrean. "Du droit vers l'oblique" bibolinerako eta biolarako sorturiko musika-lana Baiona-Euskal Kostaldeko Lurralde Orkestrak jo du aurten ganbara-musikako egitarauan. Bi musika-lan sortu ditu Présence taldearentzat: "Shally Gardens kantu ingelesaren gainian eginiko bariazioak" eta "Maitia nun zira" kantuaren bertsio bat.

1944an hil zen.

*Nació en 1969. Hizo sus estudios musicales en la Escuela Nacional de Música de Baiona-Costa Basca, donde obtuvo los premios de guitarra, música de cámara, composición, orquestación y análisis. Amplió estudios de composición en el Conservatorio de París con Nunez y Grisey.*

*En 1995 obtuvo el Primer Premio en el concurso europeo de composición para coros y maestros de capilla de catedrales de Picardie por su obra "Antiennes".*

*Su obra "Du droit vers l'oblique" para violín y viola ha sido interpretada en el programa de música de cámara por la Orquesta Regional Bayonne-Côte Basque en este año.*

*Ha compuesto para el grupo "Présence", "Variaciones sobre la canción inglesa Shally Gardens" y una versión de "Maitia nun zira".*

## SABIN SALABERRI URCELAY

Aramaioko Ibarran (Araba) jaio zen 1934an. Gasteizen burutu zituen pianoko, harmoniako eta konposizioko ikasketak Tomas Etxabarrirekin, Julio Valdesekin eta Francisco Escuderorekin, hurrenez hurren. Abestiak, pianorako eta talde instrumentalentzako musika-lanak sortu ditu. Baina gehien landu duen arloa genero askotako koru-musika izan da. Gaur egun Gasteizeko "Jesus Guridi" Kontserbatorioko zuzendaria da.

*Nació en Ibarra de Aramaiona (Araba) en 1934. Estudió en Vitoria-Gasteiz piano con Tomás Echávarri armonía con Julio Valdés y después composición con Francisco Escudero.*

*Ha escrito canciones, piezas para piano y para grupos instrumentales. Pero su principal producción radica en una amplia lista de música coral de distino género. Actualmente es director del Conservatorio "Jesús Guridi" de Vitoria-Gasteiz.*

## ARTURO INCHAUSTI BALSEIRO

Bilbon jaio zen 1897an. Jesus Guridirekin burutu zituen organoko eta konposizioko ikasketak. Bilboko Koral Elkarteko zuzendariorde izan zen Guridi zuzendari izan zen garaian.

San Anton Parrokiako organojolea izan zen hirurogei urte baino gehiagotan. Hiriko eskoletako musika-arduraduna izateaz gainera, Bizkaiko Kontserbatorioko irakasle emeritua eta zuzendariordea izan zen. Konposizio-lehiaketarako eratzen ziren epaimahaietako partaidea ere izan zen.

Musika-lan erlijioso ugari, mezak, moteteak, gabon-kantak, idazteaz gainera, musika profanoa ere landu zuen, euskal folklorea bereziki. 1986an hil zen Bilbon.

Musika-lanak: Begoñako Ama Birjinaren ohoretan eginiko meza, Meza euskaraz, Gabon abestiak, Hilen elizkizunak, Ama Birjinari kantak, Begoñako Amaren Ereserkia, Berriotxoari Goratzarrea, organorako preludioa, Orfeoirako Gernikako Arbola, Orfeoirako 1. Euskal Rapsodia.

*Nació en bilbao en 1897. Estudió con Jesús Guridi órgano y composición. Ocupó el cargo de subdirector de la Sociedad Coral de Bilbao, cuando Guridi era el director.*

*Ejerció de organista en la Parroquia de San Antón durante más de sesenta años. Fue responsable de la música en las escuelas de la ciudad. Profesor emérito del Conservatorio Vizcaino y subdirector del centro. Formó parte de tribunales de concursos de composición.*

*Dejó escritas una larga lista de obras religiosas, misas, motetes, villancicos, y cultivó también la música profana, especialmente el folklore vasco.*

*Falleció en Bilbao en 1986.*

*Obra: Misa en honor de la Virgen de Begoña, Meza euzkeraz, Gabon abestiak, Oficio de difuntos, Canciones a la Virgen, Begoñako Amaren Ereserkia, Berriotxoari Goratzarrea, Preludio para órgano, Gernikako arbola y Rapsodia vasca n° 1, para orfeón.*

# EUSTAQUIO GURRUCHAGA

Aizarnan jaio zen 1897ko irailaren 20an. Hamar urte zituenean Comillaseko Apaizgaitegian sartu zen eta A. Otañorekin hasi zituen musika-ikasketak. Gero, Donostiara abiatu zen eta organoko, harmoniako eta konposizioko ikasketak burutu zituen. Balmasedan Martin Rodriguez ere izan zuen irakasle. 1920an Luis Urteaga Donostiara etorri zenean, bera izan zen bere irakasle nagusia eta oso begirune handia erakusten zion. 1927an Ampueroko (Kantabria) organojolea eta Udal Musika Bandako zuzendaria izan zen 1963an jubilatu zen arte. Zine mutuko aretoetan aritu zen filmeak pianoz girotzen eta horrek erraztasun handia eman zion bat-batean jotzeko. Rosario Ruiz Arenadorekin, pianoko ikaslearekin, ezkondu zen eta sei seme-alaba izan zituen. 1950ez geroztik Santanderreko Consolación izeneko parrokiako organojolea izan zen eta Corbaneko Apaizgaitegiko piano-irakaslea.

1954an berak zuzendu zuen orkestra idatzi berri zuen "El mastín" zartzuela estrenatzeko. Hirurogei urtetan zehar Kantabriako parrokia askotako organojolea izan zen eta koruak eta zortzikoteak zuzendu zituen. Ohiko musika sakratu, bare, hunkigarri asko idatzi zuen, mila orri baino gehiago. Santanderren hil zen 1988ko ekainaren 8an.

Musika-lanak: Jai-egunetarako Zazpi Meza. Requiem-eko Lau Meza. Santisimoari, Ama Birjinari, Santuei eskainitako 50 motete, kantu eukaristikoak eta marianoak, gabon-kantak... Orfeoietarako 10 kantu: Ecos del mar, Boga barquilla, Si vas a San Vicente, Los picayos, etab... Amatxo maitea, Zorionak...

Bibolinerako Suite erromantikoa. Zartzuelak: El hidalgo, El mastín.

*Nació en Aizarna el 20 de setiembre de 1897. A los 10 años ingresó en el Seminario de Comillas, donde se inició en los estudios musicales con el P. Otaño. Pero pronto se trasladó a San Sebastián, donde amplió sus estudios musicales de órgano, armonía y composición. Tuvo también como profesor a Martín Rodríguez en Balmaseda. Desde la llegada en 1920 de Luis Urteaga a San Sebastián, éste fue para él su principal maestro, a quien admiraba profundamente.*

*Hacia 1927 se trasladó a Ampuero (Cantabria), donde consiguió la plaza de organista y Director de la Banda Municipal, cargo que conservaría hasta su jubilación en 1963.*

*Trabajó en salas de cine del mudo, poniéndole fondo musical al piano, lo que le dió una gran facilidad para la improvisación.*

*Casado con su alumna de piano, Rosario Ruiz Aranedo, tuvo seis hijos. Desde 1950 fue organista de la parroquia de la Consolación (Santander) y profesor de piano en el Seminario de Corbán.*

*En 1954 dirigió la orquesta en el estreno de su zarzuela "El mastín". Su vida discurrió como organista de innumerables parroquias de Cantabria durante sesenta años. Además dirigió coros y ochotes. Compuso más de mil páginas de música sacra tradicional, serena y emotiva.*

*Falleció en Santander el 8 de junio de 1988.*

*Obras: Siete Misas festivas, Cuatro Misas de Requiem, Más de 50 motetes al Santísimo, a la Virgen, a los Santos.*

*Canciones eucarísticas y marianas, villancicos....*

*10 canciones orfeónicas: Ecos del mar, Boga barquilla, Si vas a San Vicente, Los picayos, etc. Amatxo maitea, Zorionak...*

*Suite romántica para violín.*

*Zarzuela: El hidalgo, El mastín.*

# BRUNO IMAZ

Zaldibin (Gipuzkoa) jaio zen 1897ko urriaren 5ean. Pianoko, organoko eta konposizioko ikasketak burutu zituen Eduardo Mokoroarekin.

30 urte eta gehiagotan zehar Donostiako Orfeoiaren pianojole titularra, tenorea eta ahotsetarako prestatzen ziren partituren kopista izan zen.

Partitura sinfoniko ugari eta a capella, organoz, txistuz, pianoz koruek kantatzeko musika-lan asko sortu zituen.

Erakunde eta pertsona ospetsuentzako martxak eta himnoak ere idatzi zituen.

Musika-lanak: Clarin vence al ogro, ¿A dónde vas?, Fiesta de Reyes... Agur, Ernio, Aupa Gaztelubide!, Dantzan gabiltza, Erromeria, ... Recondo, Quiero ser, Marcha nupcial, Meditación, ...

